



SEXU MUXU

SEXU TRANSMISIOKO INFEKZIOAK (STI)

SEXU MUXU

Zer dira sexu-transmisioko infekzioak (STI)?

► Sexu-harremanetan (bagina, uzki edo aho bidezkoetan) edota ukimenaren bidez transmititzen diren infekzioak dira.

Batez ere, organo genitaletako muki-mintzetan hazten diren bakterio, birus, onddo edo bizkarroiek eragiten dituzte.

STI GEHIENEK PREBENTZIO ETA TRATAMENDU ERRAZA DUTE

► Horietako batzuek, ez badira egoki tratatzen, ondorio larriak izan ditzakete.

Preserbatiboa eraginkorra da STI gehienak prebenitzeko, nahiz eta, kasu batzuetan, ez dituen guztiz ezabatzen kutsatzeko aukerak

► Preserbatiboak estaltzen duen eremua soilik babesten du, eta kasu batzuetan (herpesa, giza papilomaren birusa, etab.) lesioa eremu horretatik kanpo kokatzen da.

Nork izan dezake sexu-transmisioko infekzio (STI) bat?

SEXUALKI AKTIBOA DEN EDONORK IZAN DEZAKE SEXU TRANSMISIOKO INFEKZIO BAT

Nola jakin dezaket sexu-transmisioko infekzio (STI) bat dudan?

► STI bat duzun edo ez jakiteko modu bakarra zure medikuarengana joan eta dagozkion probak egitea da.

Infekzio horietako askok ez dute, itxuraz, sintomarik.



SEXU MUXU

Zer da sifilia?

- ▶ Bakterio batek eragindako sexu-transmisioko infekzioa da; hainbat motatako sintomak izan ditzake, denbora luzean zehar.
- ▶ Hasieran, minik ematen ez duen ultzera bat agertzen da kontaktua izan den tokian (genitalak, ahoa edo uzkia), eta, zenbaitetan, ez da begi hutsez bereizten.
- ▶ Antibiotikoekin sendatzen da.

Zer da gonorrea?

- ▶ Bakterio batek eragindako sexu-transmisioko infekzioa da.
- ▶ Hona hemen sintoma ohikoenak: baginako jarioa handitzea, jariakinak zakilean edo, erredura sentzazioa txiza egitean. Gerta liteke inolako sintomarik ez hautematea ere.
- ▶ Sexu-harremanetan transmititzen da (bagina, uzki edo ahokoak); horregatik, genitaletan ez ezik, ondestean eta eztarrian ere koka daiteke.
- ▶ Antibiotikoekin sendatzen da.

Zer da klamidia?

- ▶ Bakterio batek eragindako sexu-transmisioko infekzioa da.
- ▶ Gonorrearen antzeko sintomak ditu eta bagina, uzki edo aho bidezko sexu-harremanetan transmititzen da hau ere.



SEXU MUXU

- ▶ Kasuen erdietan baino gehiagotan, ez du sintomarik sortzen.
- ▶ Antibiotikoen bidez tratatzen da.

Zer da herpes genitala?

- ▶ Birus batek sortzen du eta babatxo minberak eragiten ditu; bagina, uzki eta aho bidezko sexu-harremanetan eta lesioa duen azala ukitzean transmititzen da.
- ▶ Ez da existitzen herpesa guztiz sendatzen duen tratamendurik, baina birusaren kontrako botikak erabiltzen dira agerraldien intentsitatea moteltzeko.

Zer da giza papilomaren birusa?

- ▶ Birus bat da, izenak dioen bezala, eta garatxoak sorrarazten ditu barruko eta/edo kanpoko genitaletan eta uzkiaren inguruan.
- ▶ Bagina, uzki eta aho bidezko sexu-harremanetan eta lesioa duen azala ukitzean transmititzen da.
- ▶ Infekzio gehienek ez dute sintomarik eta berez desagertzen dira, baina kasu bakan batzuetan, umetokilepoko minbizia eragin lezakete.
- ▶ Gaur egun, kasu gehienetan, minbizi mota hori prebenitzeko txertoa erabiltzen da, txerto ofizialen egutegian onartua baitago.